



3

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Dani Maeztu Perez Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkideak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, "Harrobien Lurralde Arloko Planari buruz", ondoko **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** aurkezten du osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin.

ZIOA

Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez, Euskadiko Autonomia Erkidegorako Lurralde Antolamendurako Artezpideak onetsi ziren. Artezpide horietako "Ingurune Fisikoaren Antolaketa" atalean, "Jardueren kontrolari buruzko Artezpide Orokorrak" izenburua duen 5.3 puntuan, hurrengoia esaten da erauzketa jardueren inguruan: "Harrobi Zonetarako Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana, aire zabaleko ustiapenak ezar daitezkeen zenbait kokapenen zonifikazioa dakarrena, erreferentzia esparrua izango da horrelako erauzketa-jarduerak era bateratuan tratatu daitezzen".

Hamahiru urte beranduago ez dugu Harrobi Zonetarako Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plan horren berri. Industria eta Kontsumo sailburu Bernabe Undak 2009ko urriaren 9an izandako Osoko Bilkuran esan zuen Gobernua gai horren inguruan lanean dabilela. Geroztik, ordea, ez dugu zehaztasunik ez berririk izan Arloko Plan horren harira.

Harrobi Zonetarako Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana egitea garrantzitsua deritzogunez, hurrengo Legez Bestekeko Proposamena aurkezten du:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, 2010 urteko lehenengo seihilekoan, aurkez dezala Harrobien Lurralde Arloko Plana, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo batzordean, eta Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza batzordean.

Gasteizen, 2010eko urtarrilaren 15ean

Dani Maeztu Perez

Aralar Legebiltzar-taldeko legebiltzarkidea



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
ITZULPEN ZERBITZUA
SERVICIO DE TRADUCCIONES

A la Mesa del Parlamento Vasco

Dani Maeztu Perez, parlamentario del grupo Aralar, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente **proposición no de ley**, sobre el plan territorial sectorial de canteras, para su debate en pleno.

JUSTIFICACIÓN

El Decreto 28/1997, de 11 de febrero, aprobó las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Dentro de su apartado "La ordenación del medio físico", el punto 5.3, titulado "Directrices generales relativas al control de las actividades", establece lo siguiente sobre las actividades extractivas: "El Plan Territorial Sectorial de Zonas Canterables que conlleva una zonificación de posibles ubicaciones de explotaciones a cielo abierto constituirá el marco de referencia para un tratamiento homogéneo de tales actividades extractivas."

Trece años después, aún no hay noticias de dicho Plan Territorial Sectorial de Zonas Canterables. El consejero de Industria y Consumo, Bernabe Unda, afirmó en el pleno de 9 de octubre de 2009 que el Gobierno está trabajando al respecto. Sin embargo, desde entonces no hemos recibido detalles ni información alguna sobre el plan.

Dado que consideramos importante la realización del Plan Territorial Sectorial de Zonas Canterables, formulamos la siguiente **proposición no de ley**:

PROPOSICIÓN NO DE LEY

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que presente el Plan Territorial Sectorial de Zonas Canterables en las comisiones de Industria, Innovación, Comercio y Turismo y de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca en el primer semestre de 2010.

En Vitoria, a 15 de enero de 2010

Dani Maeztu Pérez

Parlamentario del grupo Aralar